

Gure produktua handizkari eta txikizkarietara salduko diegun, eta hauek, ondoren azken kontsumitzaileei saldu; hau da, zeharkako kanala izango dugu. Beraz gure enpresak lehengai guztiak dauzkanean, produktua sortu eta kirol produktuak saltzen dituen handizkari bati salduko dio. Honako fase hauek izango ditu produktuak azken bezeroarengana iritsi arte:

1. Lehengaiak erosi
2. Produktua sortu
3. Handizkari edo txikizkari bati saldu
4. Handizkari edo txikizkariak bere bezeroari saldu

Gure bezero nagusia handizkariak eta txikizkariak dira, horregatik gure produktua saltzen diegunean haiekin komunikatzen gara, hau da, gure kasuan zinta kirol dendatara bidaltzen dugunean, bertako eroslea edo bezeroa denda horren jabea izango da.